

ERAGIKETA ETA MONITORIZAZIO TEKNIKARIA

LANPOSTUAREN ZEHAZTAPEN LABURRA

Funtzionamendu operatiboaren mantentze-lanak egitea, arazoak konponduz eta eskaerei erantzunez, bai komunikazio-sarearena, bai Segurtasun Sailaren zerbitzariena eta ordenagailu nagusiarena, baita sistemen eta aplikazioen monitorizazioa kudeatzea ere.

EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHATZA

- Komunikazio-sistema kontrolatzea datuen trafikoaren arloan (mendeko zentroak, linea kopurua eta mota, bideratzaileak eta enkriptatzaileak jartzea eta abar) eta sortzen diren gertakariak konpontzea.
- Herrizaingo Sailaren mendeko zentroen artean dagoen sarea kontrolatu eta kudeatzea.
- Zerbitzarien funtzionamendua kontrolatzen duten monitoreak gainbegiratzea eta zerbitzarien anomalia baten aurrean anomaliaren garrantzia balioestea eta ingurune desberdinetako arduradunari jakinaraztea.
- Funtzionamendua eskasa dela adierazten duten makinaren gertaerak egunero konpontzea
- NICE eta WORDNET biltegiatze-sistema gainbegiratzea
- Prozesuak egikaritu eta kontrolatzea: Zutabe, Trafikoa (prozedura zehatzailea), Polizia Dokumentuak, Schengen, Morpho, eta abar.
- Fitxategiak aldizka garbitu eta berrantolatzea sistema optimizatzeko.
- Ordenagailuaren partizioen Bukaera eta Hasiera modu programatuan edo ustekabeko arazoengatik egitea. Produktuak banaka ezereztea eta abiaraztea kolapsoari irtenbidea aurkitzeko.
- Backup.- Diskoen, Datu Baseen eta Aplikazioen segurtasun-kopiak egitea, premien arabera eta/edo haien arduradunek eskatzen badute.